

A2.1 MAILA

Argazkietan ondo ateratzeko trikimailuak.

Entzumenaren lanketa

MANU ETXEZORTU KAZETARIA: Bueno, argazkiak, argazkietan ondo ateratzeko gidoitxo bat eman behar dizugu, Idoia. Aholku batzuk argazkietan ondo ateratzeko.

IDOIA TORREGARAI : Zer da garrantzitsuena argazki batean? Irribarrea, nik uste irribarrea dela garrantzitsuena, hórrela ematen duela, ezta? Ba pentsatzen det(dut) gida bat sortzea denontzako, ezta? Adi egon, argazkietan ondo ateratzeko aholkuak hauexek dira eta. Lehenengo eta behin egin behar dugu erlaxatu pixka bat ahoko giharrak, ma- ma- mi- mo- mu, ez dakit zer egin...halako gauza batzuk egin...

KAZETARIA: Baina tentsiorik ez.

IDOIA: Bai, ze batzuek ematen du argazki baten aurrean baino, fusilamendu-pelotoiaren aurrean daudela. Orduan, pixka bat egin behar dugu saiatu...

KAZETARIA: Lasai eta trankil.

IDOIA: Aurpegiko giharrak eta gorputza erlaxatu.Gero, irribarrearen garrantzia. Esan duguna, profesionalek esaten dute; barrea baino irribarrea bilatu eta goiko hortzak ezin direla erakutsi. Nik hori ez dut behin ere betetzen, beti paletak agerian agertzen naiz.

KAZETARIA: Kar-kar. Goiko hortzak ez dira erakutsi behar.

IDOIA: Pixka bat irribarrea interesatearena izan beharko luke, goiko hortzak ez erakutsi.

KAZETARIA: Goiko hortzak ez erakutsi.

IDOIA: Horrekin gelditu, e?

KAZETARIA: Oso ondo.

IDOIA: Gero beste bat da kokapena. Kameraren aurrean ba parez pare jarri beharrean, fijatu modeloek eta nola egiten duten: tak, pixka bat alde batera jartzen dira. 45 gradutara horrela tak. Gero jarri behar da ukalondoa gorputzetik separatuta, robot bat emango genuke, ezta? Eta pisua ere jarri behar dugu hanka baten gainean. Ez dakit Robocop emango dugun edo...Hori dena lortzen badugu, kristorena izango da, e?

KAZETARIA: oso ondo aterako gara.

IDOIA: Gero kamerari begiratu, begiratu finkoa, ez begiratu beste toki batera, despistatu- itxurarena egiteBegiak, irribarrea bezala, gehiegi ez zabaldu, hontza bezala, hori txarra da. Eta txikiak ere esnatu berriak edo beste sustantzia batzuk hartuko bagenitu bezala ere gaizki

KAZETARIA: Bale.

IDOIA: Hartu behar dugu begirada misteriosu bat bezala. Eta gero alde ona aurkitu behar dugu.

KAZETARIA: Horretan artista da Julio Iglesias.

IDOIA: Zein da zure alde ona, Manu? Ezkerrekoa, eskubikoa? Ispilu aurrean begiratu behar dugu

KAZETARIA: Entseguak egingo ditu etxean.

IDOIA: Gero batek esango du, “ Nik ez daukat alde onik”. Ba, orduan, dona-dona egin eta tokatzen dena.

KAZETARIA: Oso ondo.

IDOIA: Eta gero bat oso garrantzitsua: azpitik, behetik gora ez atera argazkirik, bestela oso gaizki ateratzen gara beti.

KAZETARIA: Oso ondo.

IDOIA: Eta azkenekoa da ez hitz egiteko, ez hitz egin. Ez dugu esan behar “ patata”, “ tortilla”.

KAZETARIA: Beti esan izan da hori.

IDOIA: Ba ez da egin behar. Egon zaitezte hor esan ditugun guztiak markatzen.

KAZETARIA: Eta isilik egon.

IDOIA: Hori da, isilik egon. Egingo dugu?, argazki bat aterako dugu?

KAZETARIA: Bai, aterako dugu?

IDOIA: Aterako dugu argazki bat? Benga, aber, jarriko gara?.

A2.1 MAILA

ENTZUMENAREN ULERMENA.

**EGITEKOA: Gomendio hauetatik zein esaten dituzte audioan?
Markatu esaten dituen guztiak.**

- Ez begiratu kamerari zuzenean.
- Erlaxatu.
- Irribarre egin.
- Ez hitz egin.
- Esku bat erakutsi, ez biak.